



euskerazaintza

LXVI Zenbakia • 2010. urtea-2

Euskeraren erri akademia
Academia popular de la lengua vasca
Lacademie populaire de la langue basque

Euskerazaintza

Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dute-
nentzat eta adiskideentzat jarritako oar bar agertu
zan, arpidedunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta
gure erantzuna au da: oraingoz ez degu arpide-
saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago
degu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emai-
tza ematen digutenak “laguntzalle” taldera sartuko
ditugu.

Gure kontuen zenbakiak onek dira:

BBVA 0182-1296-00-0201538669

KUTXA 2101-0200-46-0006681589

EUSKERAZAINTZA

Euskeraren Erri-Akademia
Colón de Larreategi 14, 2^a eskuma
48001 - BILBAO

Z. N. A. /C. I. F. G 20/127.759

Eusko Jaurlaritzaren Elkartea Erroldan, 1136 zenbakia.
Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena
(BOE 45/1981 eta EE. AA. 96/1984)

I.S.B.N. : 1132- 1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Konponketa: Flash Composición, S.L. - Bilbao
www.flashcomposition.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

Atariko	5
Mario Benedetti – Atsegin dudan jendea.....	9
Mezako irakurgaien	
Mezako irakurgaien buruz (I).....	13
Mezako irakurgaien buruz (II)	15
Mezako irakurgaien buruz (III)	17
Mezako irakurgaien buruz (IV).....	19
Mezako irakurgaien buruz (V) ¹	21
Mezako irakurgaien buruz (V) ²	23
Mezako irakurgaien buruz (V) ³	25
Euskalerriko posta	29
I.- Euskal kulturaren sustraiak (Latxaga).....	31
II.- Bidalgoa “Bidalgo ikurrak euskeraz”	33
Sarrera	35
Britaniaren entziklopedia	37
Bidalgo ikurrak zegaitik eskeraz?.....	39
Zer dan eta zertarako dan seillua	41
Zergaitik eta nork azalkeatu leiken seillua	43
Erriaren nortasuna	45
Ondorioa (Atutxatar Paul).....	47
III.- Erri txikien nortasuna (Latxaga).....	51
IV.- Euskalerriko nortasuna (Josu Iturrioz)	55
V.- Postako izenak euskeraz egiñak (Latxaga-Olazartar Martin)	57
Postako izenak euskeraz (Olazartar Martin).....	57
VI.- Euskadiko Jaurlaritza 1937an egindako zorrobidea.....	59
VII.- Ana Marin margolari ziñezkoa (Latxaga)	61
VIII.- Pilotariak Euskal jolasen oñarriak (Josu Iturrioz)	73
IX.- Euskaldun berriak (Latxaga)	75
X.- “Neke ta poz” liburua 1983 Yon Oñatibiaren emaitza (Latxaga).....	77

Atarikoa

Artu daigun eredutzat, *Lorazale* batek daroan jarrerea *lorak loratuteko* alegiñetan.

Iru gauza joten ditu bearrekotzat besterik beste: *aukeratu, sendotu ta zaindu*.

AUKERATU: lurra, azia ta kolore mota.

SENDOTU: ongarrirituz ta ureztatuz.

ZAINDU: kaltegarritzko arrak, aize zakarrak, zikinkeriak... baztartu.

Beti be, begiak zur eta eskuak bizkor eguneroko lanari muxiñik egin barik.

Eta au alan izanaz eta ikusiz lora ta lorategiei buruz, euskal erriko ta euskaldun garala autortzen dogunok beste ainbeste egin bear geunke, jo ta ke, euskeraren alde.

Bizkaikoak bizkaiera, zabalena dan euskalki *bizia*, ondo zainduz eta aberas-tuz. Gañerakoak ontzat emonez, Euskera guztion artekoa dalako.

Izan be orixe dogu lematzat EUSKERAZALEAK ALKARTEKO bazkide ta lagun garanok. Bakarrean gagozala (leiduten, kantetan, pentsetan, idazten...edertuten) edo ta alkarartean (etxeoakaz edo kanpokoakaz, kallean edo autobusean, trenean, bulegoetan, komertzioetan... alkarizketeaz, barriek emon edo esanaz, euskaldun barri edo zar...lotsatu barik gero!)

Euskaldun baten nortasun agiria euskera jakin eta egitea da eta EZ inñondik be Euskalerrian jaiotea bakarrik.

(Salbuespena lez gerta leike, zoritzarreko egoera gogor baten erruz, *euskera ez jakitea aoz, baña biotzez maite izatea*)

Bide orretatik abiatuz iru arlotan atondutako idazkiak ikusi leikez EUSKERAZAINTZA zenbaki onetan.

Lenengoan: Mario Benedettiren idazki bat.

Bigarrenean: Mezatan erabiltzen diran euskal-irakurgaiak osatzeko egindako billera ta lanak.

Irugarrenean: Euskalerriko Postari buruzko txostena, Latxaga, Atutxa, Iturrioz eta Olazaren artean egindakoa.

**Claudio Barroeta Amorrortu
Lendakaria.**

Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adiskideentzat jarritako oar bar agertu zan, arpidedunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago degu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen digutenak “laguntzalle” taldera sartuko ditugu.


Gure kontuen zenbakiak onek dira:

BBVA 0182-1296-00-0201538669

KUTXA 2101-0200-46-0006681589

Mario Benedetti

Atsegin dudan jendea.



Zirrara sentitu baina bultzada bearrik ez dutenak, zer egin aipatu bearrik ez zaienak, badakitelako zer egin eta ekiteko gauza direlako.

Ametsak maite eta amets oriek euren zati bilakatu arte amesten jarraitzen dutenak.

Ekintzen erantzukizuna bere egiten dutenak, amets bategatik ziurtasunak utzi eta ziurtasun ezean jardutera ausartzen direnak, aolku orekatuak alboratuz konponbideak Jainkoaren esku uzten dituztenak.

Aldamenekoekin eta euren buruarekin zintzo jokutzen dutenak, egun berriagatik bizitzako alde onari gogoz begiratzen dietenak, aldioro aal duten onena emateko prest, bizitzagatik eskertuta irribarrea eskainiz, ezeren truke laguntzeko prest.

Aurrez aurre eta mindu gabe kritika eraikitzailea luzatzen didatenak. Tentuzko pertsonak direlako.

Justiziaren senari lotzen direnak. Adiskide ditut.

Alaitasuna balioztatu eta babesten dutenak.

Txantxetan bada ere, bizitzari umore ona jartzen irakasten digutenak. Txikien nortasuna sekulan galdu ez dutenak.

Euren kemena besteei edatzen dietenak.

Esan garbikoak, edonoren erabakiei argudio bidez aurre egiteko gai direnak.

Leial eta iraunkorrak, zerbaiten lortze-bidean amore ematen ez dutenak.

Irizpideko direnak, anka sartu edo zerbaitetan ezjakin direla onartzen dutenak. Euren akatsak aitortu ondoren berriro ez okertzen saiatzen direnak. Ezbearren aurka aalegintzen direnak.

Irtenbideak aurkitzen saiatzen direnak.

Barne gogoeta lantzen dutenak. Besteen irizpide neurrian edo ageriko itxuretan geratzen ez direnak. Besteak ez epaituz, beste oriek ere epaitu ez gaitzaten eskatzen dutenak.

Bereko nortasuna azaltzen digutenak.

Barruko ez dena buruz apaintzen saiatzea gizakion akats andiena dela ulertzen dutenak.

JENDE ARRUNTA izateko batez ere zera lantzen dutenak: urbiltasuna, kuraia, elkartasuna, ontasuna, begirunea, patxada, balioak, alaitasuna, itxaropena, esker ona, jakinduria, amestea, apaltasuna, damutzea, eta norbere zein besteekiko maitasuna.

onelako jendeaz bat egiten dut geratzen zaidan bizitzarako, naiko baitzait oriek nire alboan izateak.

Eskerrak jende mota orretakoa izateagatik.

Ezinezkoa da garaipena eskuratzea galtzen jakin gabe. Ezinezkoa ibiltzea erortzen jakin gabe. Ezinezkoa asmatzea anka sartu gabe. Ezinezkoa bizitzea bizitakoa gogoratu gabe.

Ospea ez datza sekulan ez erortzean, bear den aldi guztietan altxatzean baizik.

Oso jende gutxik lortzen du ori.

Zorionekoak soiltasun berberaz jasotzen dutenak garaipena edo porrota, asmatzea edo anka sartzeta... Alaitasuna balioztatu eta babesten dutenak.

Patxi Otamendi

e



Mezako irakurgaien buruz Nafarroako apaizek egindako lana (I)

(La Verdad 4 de mayo de 2002)



Batikano II. Kontzilioaren asmoei jarraituz

Joan XXIII.ak deituta mundu guztiko apezpikuak bildu ziren Erroman 1962ko urriaren 11an Vatikanoko II. Kontzilioari asiera emateko. Leenen-go dokumentua aztertu zutena Liturgiari zegokiona izan zen. Joan XXIII.a 1963ko ekainaren 3an il zen.

Aita Santu berriak, Paulo VI.ak, Kontzilioa aurrera eraman nairik bigarren bileran bildu eta Liturgiari buruzko Konstituzioa apezpikuek landu ondoren, 1963ko abenduaren 4an Paulo VI.ak ontzat eman zuen, eta praktikan jartzeko batzorde batzuk sortu zituen.

Irugarren bileran Liturgiako batzordeak —Consilium deritzanak— erabaki zuen mezako zenbait zati tokian tokiko izkuntzetan egitea. Erabaki au 1965ko garizumako leenengo igandean praktikan jartzen asi zen. Ala eta guztiz ere, urtearen asieratik **epistola** eta **ebanjelioa** bertako izkuntzetan irakur zitezkeen.

Espainiako apezpikuek Erroman bertan erabaki au artu zuten : testu ofiziala agertu bitartean, soilik esku-misal aukerabiltzen aal zirela: Ribera, Rambla, Nacar-Colunga, Castillo-Sanz, Goldaraz, Pons, Serra, Gubianas, Molina, Gaspar Lefevre, Vilariño, Sancez-Ruiz, Antoñana, Perez de Urbel, eta Monasterio de Montserrat. Eta au agindu zuten: “bertze testurik *ez da zilegi erabiltzea*”. Nonbait beldur ziren geiegikeriarik sortuko zirela.

Euskerazko irakurgaiak

a) Gauzak orrela, **Don Tomas Otxandorena** Saldiasako erretoreak Don Juan Ollo Iruñeko Bikario Orokorrengana jo zuen, parrokitan zer testu erabili bear zen galdetuz. Orduan Bikarioak oar bat atera zuen Elizbarrutiko Boletinean —1964ko abenduan— Orixeren itzulpena ontzat emanaz eta parrokitan erabiltzeko aipatuz.

Nor zen Orixe? Nikolas Ormaetxea, Gipuzkoako Orixan jaioa. Orixe berak erraten digu: “Nere ama gaixoak, aurraldi batez, titi baiñon aur geiago izan zituela”. Eta azken jaioa zelako eta iruretan aulena, amak irurak ezin azi aal izan zituelako, Nikolas txikiari iñude bat bilatu zioten Nafarroako Uitzin. Emen izan omen zituen bere bizi guztiko maisurik onenak: erriko maisua eta etxeko amona-ordea. Xabierreko Jesuitetan sartu zen 17 urteekin 1905. urtean. Jesuiten leku desberdinetan ikasketak egin ondoren, 1923.ean Jesuitetatik atera zen. Euskeraz asko idatzi zuen, bertzeak bertze, **Urteko Guziko Meza-Bezperak liburua**, 1949.an Iparraldeko Azkainen argitaratua.

b) Bertzaldetik, **Don Bizente Ernadorenak** Donostiako apezpikutegitik urtarrilatik Garizuma bitarteko igandetako epistola eta ebanjelioak euskaratuak ekarri zituen. Espainako apezpikuek soilik erderaz irakurtzeko epistolak eta ebanjelioak erabaki zutelarik, orduko Donostiako apezpiku Don Lorenzo Bereziartuak erabaki zuen bere Elizbarrutian naitanaiezkoa zela euskeraz itzulpenak egitea. Eta leenengo fruitua auxa izan zen.

d) Baionako Elizbarrutian, berriz, 1964.go apirilean asi ziren epistolak eta ebanjelioak erderaz (frantzesez) eta euskeraz irakurtzen, au da, bederatzi ilabete leenago.



Mezako irakurgaien buruz Nafarroako apaizek egindako lana (II)

(La Verdad 12 de mayo de 2002)



Mezaren egunerokoa


a) Mezaren Egunerokoa tokian tokiko izkuntzan martxoaren 7an irakurtzen asi zen. Egun ura Garizumako leenengo igandea zen. Iruñeko Elizbarrutiko martxoko Boletinean, leenengo orrian, gure artzapezpiku Enrike Delgado jaunak auxe zion: “Gure Elizbarrutian *Mezaren egunerokoa euskerazko itzulpenarik ez dugu*, baina gure parroketan iadanik, urtearen asieratik, epistola eta ebanjelioa irakurtzeko Baionako Elizbarrutiko testuak eta Donostiako Elizbarrutikoak erabiltzen ditugu”.

b) Orren ondorioz artzapezpikuak talde bat izendatu zuen ea komenigarri litzatekeen Mezaren Egunerokoa nafarreraz egitea aztertzeko. Bitartean, Baionako eta Donostiako itzulpenak erabiltzea ontzat eman zuen. Ekainako Boletinean Mezaren Egunerokoa nafarreraz egina zegoela aipatzen da. Edizio au Nafarroako Diputazioak argitaratu zuen, eta liburuxka oriek nai zuten parrokiek doain artzen aal zituzten.

d) 1965. urtean Mezaren Egunerokoa euskeraz lau itzulpen baziren: Baionakoa, Bilbokoa, Donostiakoa eta Iruñekoa. Baina, Nafarroan gauza bitxia gertatu zen: iru itzulpen erabiltzen zirela, alegia. Adibidez, Beran eta Lesakan, Donostiakoa; Igantzi eta Arantzan, Nafarroakoa; eta Zugarramurdi, Urdazubi eta Baztango zenbait erritan, Baionakoa. Eliztarrak erabat naasturik zeuden.

e) Euskal Errian eztabaida sortu zen Mezaren Eguneroko itzulpenak bat bakarra izan bear zuen ala ez. Urretxun 1966. urtean iru bilera egin ziren eta testu bat atera zen. Proba gisa, testu ori, Urretxun bertan burutu ziren uztailako jardunaldietan erabilia izan zen.

f) Eukaristia Otoitza Nagusia —Kanon deritzana— oraindik leku guztietan *latinez* egiten zen. 1967.go maiatzean Erromak Kanona itzuli eta erabiltzea agindu zuen. Orduan Urretxuko taldea eta Donostiako itzulpen ofizialekoak elkarriketatu ondoren, Donostiako Seminarioan euskalki guztietako arduradunek elkarrekin lan eginen zutela erabaki zuten. Eta ala egin zen.



Mezako irakurgaien buruz Nafarroako apaizek egindako lana (III)

(La Verdad 19 de mayo de 2002)



Astegunetako irakurgaiak

a) Garai artan, Madriden azaroko 1967. urtean *La Biblia en la Misa* liburua argitaratu zen. Dena den, egia da 1958. urtean jesuitek Erramun Olabide gasteiztar jesuitaren euskal Biblia argitaratua zutela. Garai artan erabiltzen zen euskera garbi-garbira itzulia zen. Gaur egun, egia da, liburu orretan erabiltzen den euskera ulertzea zaila egiten zaigu.

La Biblia en la Misa liburu onek laguntza handia eskaintzen zuen, Bibliako pasarte nagusiak sailka irakurtzeko moldatuak baitziren. Au bertze nazioetan aspaldidanik egiten oi zen. Euskeraz ez genuen orrelakorik.

b) Doneztebeko Artzapezbarrutiko apezak konturatu ginen erdaldunek eguneroko Mezatarako Bibliako irakurgaiak bazituztela, euskaldunok, ordea, ez. Egoera onen aitzinean, utsune ori betetzeko, apez batzuk Abendu-aldiko astegunetako irakurgaiak prestatzen saiatu ginen, batez ere Saldias eta Iturengo apezak, Tomas Otxandorena eta Bizente Ernadorena. Lan oriek egiteko *Olabideren* Biblia izaten genuen aurrean eta zenbait lan Saldiasen argitaratu.

d) Erroman onartu zuten Enrique Delgado Gomez Iruñeko Artzapezpikua-aren kargua uztea, eta Arturo Tabera jauna Artzapepizku berria izendatua izan zen. 1968ko uztailan gertatu zen ori eta Arturo Tabera abuztuaren 14an Iruñean sartu zen.

Urte orren Eguberrietan Lizarran bildu ziren Iruñeko artzapezpikua Arturo Tabera, Bilboko Administrari Apostolikoa Jose Maria Zirarda eta Donostiako apezpikua Jazinto Argaña. Eta, bertzeak bertze, erabaki au artu zuten: Euskal Erria osorako itzulpen talde bat osatzea, liturjia, katekesi eta erlijioeko testuetaz arduratuko zena.

Orduz geroztik —1969. urtean— Donostiara joaten asi ginen ofizialki Liturjia taldera Jose M^a Azpiroz jauna eta neroni; gero asi zen Miguel Plaza ere joaten. Erljio eta katekesiko itzulpen taldera, berriz, Bizente Ernardorena eta Eugiko erretorea Martín Azpiroz Azpiroz.

e) 1968ko urteko udazkenean, apezek, Gogo Jardunaldiak Oarrizen euskeraz egiterakoan, erabaki genuen “*officioso*” izanzen ziren astegunetarako irakurgaiak, erriak obeki ulertzeko, geurok euskeratzea. Orretarako 1967. urtean argitaratutako ITUN BERRIAz (“Orixe”-Kerexeta-Zugasti) eta Olabideren BIBLIAz Itun Zaarreko testuentzat baliatu ginen. Gure asmoa erriari parroketan euskera modu errazean ematea zen.

f) 1969. aurretik noizka Donostiako itzulpen taldera jotzen nuen, nola zioazen itzulpen lanak jakiteko. Talde au, *Missale Romanum* euskeratu ondoren, A zikloko Igande eta Jai-egunetarako irakurgaiak euskeratzen asia zen. Taldearen elburua, asmentatik, iru zikloak euskeratzea zen. Gure ustez Astegunetako itzulpenak ez zioazen nai bezain azkar. Orregatik, gauzak aurreratzeke, Oarrizen bildu ginenok Astegunetako irakurgaiak itzultzea eta argitaratzea gure gain artu genuen.

g) Goian (b zenbakian) aipatu da Abendualdiko Astegunetarako irakurgaiak prestatzeko leenengo saioa nola egin zen.

Abenduko bertze gainerako irakurgaiak argitaratzeko, Esteban Irurzun Urrozko erretorea, Bizente ernandorena Iturengoa eta irurok Iruñera joan ginen *Casa Sacerdotalera*. An Bautista Irazoki apezak idazmakina eta multikopian ateratzeko tresnak utzi zizkigun.

Azkenean ni asi nintzen parafinarekin egindako klitxeak —garai artan egin zen bezala— prestatzen. Uste baino denbora geiago joan zitzaigun lan ori burutzen; ala eta guztiz ere, gure lanak parroketara igorri genituen. Urte artan bertan Eguberrialdiko astegunetarako irakurgaiak multikopiaz prestatu genituen, baina ez genituen zabaldu ez genuelako sobera denborarik izan itzulpenak tenorez bidaltzeko.



Mezako irakurgaien buruz Nafarroako apaizek egindako lana (IV)

(La Verdad 26 de mayo de 2002)



Itzulpen lanak

a) 1969ko urtearen asieran, Astegunetako irakurgaien euskeratzeko lanean pentsaketan egon ondoren, Bazkokoaldiko zazpi asteetako irakurgai guztiak Itun Berrikoak zirela oartu ginen eta oso errazak euskeratu eta argitaratzeko.

Itun Berria osorik Donostian argitaratu zen 1967an. Liburu onek euskera errazean jarriak zituen ORIXEk lau ebanjelioak. Itun Berriko gainerako testuak Kerexeta apezak bizkaieraz moldatu eta Zugasti apezak gipuzkeraz jarri zituen, jendeak obeki uler zezan.

b) Saldiasko apezaren idazmakinez klitxeak idazten Sunbillan asi nintzen. Don Esteban Irurzun bi egunez laguntzera etorri zitzaidan laguntzera. Klitxeak idatzi ondoren, Saldiasera joan ginen eta ango multikopian atera eta sailkatu genituen. Irungo Razkin moldiztegian gaineko azalak moldatu eta Donostiako Erreparadoretan salgai paratu genituen. Egun berean ere salgai paratu genituen Bazko Gauaren testu berriak.

d) Euskal Erriko itzulpen taldeak (1969ko asieran Euskal Erriko apezpikuek erabaki baitzuten denek talde berean lan egitea) Bazko Gauaren testu berrien euskeratze lana amaitu zuen. Donostiako Liturgia batzordeak 1969ko Bazkotan leenengoarekin jarraitzea erabaki zuen astirik ez baitzen moldiztegian argitaratzeko.

Iruñeko Elizbarrutian, berriz, erderazko Bazko Gauaren liburu berria erabiltzea erabaki zuten. Jokaera orren aurrean Jose M^a Azpiroz, Maximo Ernardorena eta Basilio Sarobek Bazko Gauaren liburu berriaren otoitzak, irakurgaiak eta abestiak multikopiaz prestatu zituzten eta Donostiako Erreparadoretan salgai jarri.

e) Bereala Urtean Zearreko astegunetarako irakurgaien bi urtetako zerrendatik urte bat aukeratu zen, agian errazena, euskeratzeko. Bi urteetako irakurgaiak onela zeuden eratuak: amazazpi asteakoak Itun Zaarretik eta bertze amazazpi asteakoak Itun Berritik.

Nafarroako Mendialdeko bortz arztapezgoek parte artu zuten amar astetarako Itun Zaarreko irakurgaiak antolatzen, Gipuzkoako apezpek sei astetarako, eta Arabako apez batek bertze aste baterako. Erantzun Salmoa Orixeren Salmutegitik eta Zugastiren Salmudiatik artu nuen.

f) Urtean Zearreko astegunetarako irakurgaiak bi zatitan argitaratu ziren. Leendabiziko zatiak leenengo amazazpi asteak zituen eta uztailearen asieran argitaratua izan zen. Urrengo zatia, bertze amazazpi asteak zituena, irailean. Lan au amaitu nuenean idazmakina Saldiasko erreteroari itzuli nion.



Mezako irakurgaien buruz Nafarroako apaizek egindako lana (V)

(La Verdad 2 de junio de 2002)



Kantu eta Irakurgaiak

a) 1969ko Abuztuan, Iruñeko Elizbarrutiko Eliz-kantuen arduradunak bildu ziren. Euskerazko sailak Gipuzkoako taldearekin arremanak edukitzea komeni zela ikusirik eta bertze Elizbarrutikoekin aitzinetik biltzen nintzelako, bitarteko izendatu ninduten. Urriaren 14a paratu zen Bertizen biltzeko eguna.

Arturo Tabera artzapezpikuak Donostian itzulpenetan biltzen ginenen lana eskertu nairik, bazkari bat Mugaire otelean eman zigun urriaren 13an. Bazkari artan bertze Elizbarrutietako lagunei Bertizko bileraren berri eman nien, aal bazuten, urrengo eguneko bilerara etor zitezzen animatuz.

b) Baionako ordezkariak ezin zuela egun orretan etorri erran zigun, baina prest zegoela etorkizunean gurekin lan egiteko.

Bertze guztiak Nafarroako taldeak landutako kantuen bilduma jorratzen asi ginen. Baina Azaroaren 30ean, MEZAREN EGUNEROKO BERRIA indarrean sartu bear zela aitzakiaz, testu orientzat doinu berriak leenbaileen prestatu bear zirela erabaki genuen.

Lan orretarako Iruñeko *Damas Apostolicas* lekaimen etxean urriaren 30ean bildu ginen. Egun artan erabaki aukeratu genituen: 1) MEZAREN EGUNEROKO BERRIarentzat doinuak sortzeko konkurtsoa 2) Irakurgai berrientzat Aita Iratzederren Salmoak erabiltzea, eta 3) Abesti liburuxka egiteko talde bat eratzea.

Musika taldearen idazkari garai artan Luzaiden apez zegoen Miguel Angel Sagaseta izendatu genuen. MEZAREN EGUNEROKO BERRIaren doinuak Garizuman astea izan zen talde onen fruiturik nagusiena. Aldi berean, bearrezko zela abestien liburu orokor bat argitaratzea eta, ondorio gisa, 1972an GORA JAINKOA!-1 liburua agertu zen.

d) 1969ko udaran Erroman **Irakurgaien zerrenda ofiziala** argitaratu zen. Erromatik apezpikuei igorri zieten ordurarte itzaultzaileek erabiltzen zuten zerrenda, apezpikuek aztertu eta bear ziren zuzenketak egin zituzten. Eta, egia erran, aldaketa sakonak egin ziren.

e) Abendu eta Eguberri aldietako astegunetarako irakurgai “ofiziosoak” azaroan argitaratu ziren. Irakurgai auen klitxeak egiteko Iruñean bertze idazmakina utzi zidaten. Aurreko urtean egindako zati anitz baliagarri zen eta falta ziren irakurgaiak apez lagun batzuek prestatu zituzten.

Donostiako Liturgi batzordeak Nafarroan astegunetarako argitaratu ziren irakurgaiak **onartu zituen**, ofizialak etorri arte; orregatik Astegunetarako irakurgaiak berriro argitaratu bear izan ziren.



Mezako irakurgaien buruz Nafarroako apaizek egindako lana (V)

(La Verdad 9 de junio de 2002)



Irakurgai ofizialak. 1

a) Azaroaren 30ean, Abenduaren leenengo Igandearekin, *MEZAREN EGUNEROKO BERRIA* eta Igandeetako irakurgaiak asi ziren mezetan ofizialki irakurtzen.

Moldiztegian egiteko betarik ez zegoenez, Donostiako Liturgiako batzordeak neroni eskatu zidan *B urteko Igande eta Jai-egunetarako irakurgaiak* multikopiaz argitaratzea. Lan aukeratu egiteko batzordeak idazmakina elektrikoa erosi zuen. Lan berbera egin bear izan nuen *C zikloarekin* eta *A zikloarekin*. Multikopiako lan aukeratu sailkatzen Donamariako lekaimiek laguntza paregabea eman zidaten.

b) Belloc-ko Monastegiko Aita Iratzederrek (Xabier Diarce) 150 salmoak euskeratu zituen itzulpenari erritmo eta neurri bereziak jarritz. Aita Iratzeder oartu zen Euskal Errian abestiak 5/4 // 5/4 silaben neurrira agitz ongi egokitzen direla.

Adibidez:

Ogi zerutik (5 silaba) / etorria (4 silaba);

Zu zera gure (5 s.) / poz guztia (4 s.).

Bertze adibidea :

Or zaude Jesus (5 silaba) / aldarean (4 silaba);

gorde nai zaitut (5 s.) / biotzean (4 s.). Eta abar.

Oni guztiari jarraipena eman nairik bertze neurri batzuk ere sortu zituen, errate baterako:

5/5/4 // 5/4

edo 5/5/4 // 5/5/4

edo 5/4 // 5/5/4. Eta abar.

Salmo bakoitzak bizpairu errepika ditu neurri berean, eta salmo eta errepi-karen doinuak Belloc-ko bertze beneditar batek (Aita Gabriel Lertxundi) prestatu zituen. Oriek dira gaur egun bortz Elizbarrutietako parroketan euskal parroketan abesten diren doinuak. Adibidez: *Beti betiko zoriona // Zuk eman, Jauna, arnas berri // Kanta Jaunari lur guztia.*

1963.ean Bellocen argitaratu zen liburu au. Salmo orien testua Aita Bazterrika beneditarrek gipuzkeraz jarri zuen eta Aita Lino Akesolo karmeldarrak bizkaieraz. Adituen ustez, bizkaieraz egindakoa lana oso ona omen da.

d) Erantzun-Salmoa leenengo irakurgaiaren ondoren abesteko baldin bada, eta ez irakurtzeko, nola utzi IRATZEDERren altxor aberatsa alde batera?

Juan M^a Lekuona, Karmelo Etxenagusia eta Tomas Otxandorenak osatzen zuten Itzulpenen poesi taldeak Igande eta Jai bakoitzerako salmoak eta errepikak jorratu zuen. Lazkaoko beneditarrek iru liburuxketan argitaratu zituzten salmoak eta errepikak zenbait doinukin igandeetan eta jai-egunetan abesteko.



Mezako irakurgaien buruz Nafarroako apaizek egindako lana (V)

(La Verdad 16 de junio de 2002)



Irakurgai ofizialak. 2

a) Igandeetako irakurgaiak eta gainerako irakurgaiak euskeratu ondoren, 1971an irakurgai guztiak berriz errebisatzea erabaki zen. Sendotzako sakramentuaren irakurgai eta otoitzak izan ziren leendabiziko momentuan aztertuak. Bereala, gauza bera egin zen Iletetakoeekin. Gainera, epe motzean, berriz ere oni guztiari erreparu sakona eman zitzaion. Gaur egungo IRAKURGAIEN liburuan leen baino obeki daude.

b) Den dena amaitu ondoren, 1978ko asieran lan osoa moldiztegiara eraman zen. Lan onetan izugarrizko garrantzia izan zuen taldearen buru zenak Eustasio Etxezarretak. Itzulpenek garrantzi andia dutelako, lau Ebanjelio-etarako egindako itzulpenak patxadan zuzendu zituen. Berezeki lan zeatza egin zuen sinoptikoak aztertzerakoan.

d) Arazo bat sortu zen: IRAKURGAIEN LIBURU OFIZIALEAN zein Erantzun-Salmoen saila aukeratu bear zen, Iratzederrena ala Orixerena, alegia.

1977an ORDUEN LITURGIA argitaratu zen. Lan au egiteko poesi taldean ari izan ziren lagunei bertze batzuk bildu zitzairen, ala nola, Manuel Lekuona, Mikel Zarate, Agustin Apaolaza, Gandiaga, Aita Lino Akesolo, Iratzeder...

Bearrezkoak ziren aldaketak egin ondoren, Orixeren aldeko apustua egin zen. Aukera au egiteko Juan Mari Lekuonaren iritzia kontuan artu zen, berak baitzioen Orixeren Salmoek poesi kutsu andia zutela. Orixek, gainera, latinezko poema egiteko sistema ongi menperatzen zuen eta, arrazoi orren ondorioz, euskeratutako salmoei alako erritmo berezia ematen zien. Bertzalde, Aita Apaolazak zioen bezala, salmoari itz bakar bat aldatzen bazaio, poemak edertasuna galtzen du.

e) IRAKURGAIEN liburua Donostian 1978ko Xabierko San Frantzisko egunean argitaratu zen, Erantzun-Salmoak Orduen Liturgiatik artuak dituelarik.

f) GORA JAINKOA!-1 liburua 1972an argia ikusi zuen; 220 abesti euskeraz, 10 latinez eta 102 gaztelaniaz biltzen dituelarik. Auxe izan zen 1968an Bertizen asi zen lanaren fruitua Egoaldeko euskaldunentzat.

g) GORA JAINKOA!-2 liburua Bertizko aritik jarraitzen du eta 1979an argitaratu zen. Liburuak bide ematen du salmoak abesteko, bai Iratzederren neurrien modura, bai Orixeren modura.

i) ORDUEN LITURGIKO DOINUEN liburua 1980an argitaratu zen eta onetan Orixeren Salmo guztiak abesten aal dira bertan agertzen diren doinuekin.

j) Geroago, 1984ean, ain zuzen ere, GORA JAINKOA!-3 liburua argertu zen.

GORA JAINKOA!-4, GORA JAINKOA!-5 eta GORA JAINKOA!-6 iru liburua 1986an agertu ziren, koruak erriarekin abesteko doinuak dituztelarik.

GORA JAINKOA!-7 liburua, berriz, 1998an agertu zen. Kantu bilduma aukerazko Liturgi Kanturako Elizbarrutiarteko Batzordeak eratu eta IDATZ Donostiako Elizbarrutiko argitaldaria zabaldu, parrokia guztietan onespren andia izan zutelarik eta, gaur egun ere, dutelarik.

Sunbilla 2002ko maiatzaren 31a

Egilea: Basilio Sarobe Aldave

Idazkera laguntzailea: Jesus Goldaraz Lizaso





Euskalerriko Posta



Arkibide nagusia

I- Euskal kulturaren sustraiak (Latxaga)	31
II- British Enciclopediaren azterketa (Paulo Atutxa).....	33
III- Erri txikien nortasuna (Latxaga).....	51
IV- Euskalerriko nortasuna (Josu Iturrioz)	55
V- Postako izenak euskera (Martin Olazar-Latxaga).....	57
VI - Euskadiko Jaurlaritza 1937an egindako zorrobidea. 18 Eredu	59
VII -Ana Marin margolaria ziñezkoa (4Latxaga).....	61
VIII- Pilotariak Euskal jolasen oñarriak (Josu Iturrioz)	
IX- Euskaldun berriak (Latxaga)	75
Garrantzi aundiko itzak euskeraz Erriaren yakintza jaso bearra	
X- Eredu batzuen agerketa (Latxaga)	77





I.- Euskal kulturaren sustraiak

Kulturaren garrantzi aundiko gertakizunak ikusi ditut ludi zabalean. Iritsi naiz ikasteko jakintza etxetara: Harvar, Yale, Princeton, Kolumbia. Egiazko jakintsuak entzuten izan naiz. New Yorken 15 urte egin ditut. Ikasteko giro zoragarria zegoen.

Bostondik, Mauriz Mohlo eta Duran, ni ikustera, etorri ziren. Ango Unibersidadean itzaldiak ematea zen elburua.

Brigport irian, Connektikut delako estaduan etorri ziran, alde batetik Maurice Molho, Parisko irakaslea, Yale ikasle nagusira. An azaldu ziran Alicante eta Valenziako langille talde batzuek. An itzaldi batzuek eta Españiko selloak agertzen zituztela, laukietan orman txintxilik jarrita. Erakusketa ura ikusiaz biotza lasaitzen zen. Selluak ematen zien erakusketa aieri kultura baten indarra, edertasuna eta goitasuna.

Selloen bilduma osoak lortzaille, aien erdian amets askokin agiri gelditzen ziren.

Irakasle ospetsuak, langille oien erdira etortzen ziralata arrituta gelditzen ziren. Aien erdien amets asko agiri ziren.

Selloak erri baten nortasuna agertzen digute, gañera diruarekin eten gabeko indarra ematen diote. Selloak ikusten ikasten dituzte eta danentzat irabazi ederra.

Selluak ematen zien erakusketa aiei kultura baten indarra eta edertasuna. Yakintza sendotzen zuten eta lanaren elburua selloak sorteen erri baten lana nola dan.

Langille aiek oartu ziran nola selluak ez ziralta banaka erosten orrialde osotan Biak. Selloak orrialdetan salgain agertzea baizik.



II.– Bidalgoa” Bidalgo ikurrak euskeraz”

Aurkezpena:

Badaroaguz apurka apurka gure Euskal Etxearen jabetasunerako bideak beteten, eta ori oso pozgarria da niretzat, neure bizitza orren neurrian betetan dalako.

Bardin izan bear leuke Euskal anai-arreba guztientzat, danon Etxe Nagusiaren NORTASUNA zentzuz elburutzen ikusi ezkeru.

Gure EUSKALERRIaren edertasuna, ez dalako ulertzen Euskal zentzuan izan ezik.

Nor beren etxe txikian egiten dogun antzera jantzi bearko gendun Etxe-Nagusia.

Sarreran edo eta gela andietan: “Guraso, Aitite-amama, osaba-izeko, etxeko seme-alaben argazki edo margoziak eta auek jakintzan lortzen dabezan garrantzi andiko agiriak, bai erriaren lur edo itsas-bazter eder ta gure errigizon jakintsuarenak, ondo apaindurik eskegita edo etxekoen baten-bategaitik lan ederrean egineko zarkin poli baten gainean eta abar.

Dana dala, etxearen berotasunera sartzerakoan, guri zeozer esaten dauskuna eta batez be alaitu ta lasaitu egiten dauskuenakaz. Gauza orreikaz, EUSKALERRIKO erri jakintzaren sinismena sendotu egiten dalako eta Etxe Nagusiaren izaera biztu, NORTASUNEZKO argi dirdaitsuakaz.



Sarrera:

Gure gizarteetan gaur, menperatzailetasunezko xautzailetasun negargarri onen bidez, izatera jokatu baiño neurri andi baten beintzat, itxurara emoten dautsagu ardua andiagoa eta ez gara arduratzen geiegi bear doguzan gauzakaz.

Adibidez, sarritan arrokeriz esaten dogu: “Nire etxean berrogei margozki eta milla liburu inguru dagoz”. Baiña, norenak edo zeren buruz diran itandu ezkeru, ez da agertzen erantzun garbirik. Bai arrokerien aberastasun ustelugari baiño besterik ez.

Latxaga jaun jakintsuak neugaz eukineko alkarrizketaren bidetik dator guzti au.

Beren esana: “Gure erria jakintzan edertzeko eta erbestetasunean ezagun andiagok izan gaitez, eskutitz ta fardelak banatzeko BIDALGOA (servicio e correos) eskuratu bear dogu, tresneri andia dalako erri baten zabal-kunderako (propaganda)”.

Begitu bestela erria ezagutzeko arloan, zelako mailla andia artuko leuken gure gizon andiak, euren izen-irudiak esku artean edo ta eskutitz bidez erabilteagaitik: Azkue, Aranatar Sabino, Orixe, Lizardi, Onaindiatar Santi, Barandiarantar Joxe Miel, Lekuonatar Manuel, Kanpiontar Arturo eta abar.

Ez dozu ikusten?.

Olan izango balitz, ze polita izango litzake gure erriarentzat.

Gaur ezagutzen doguz: Cervantes, Lope de Vega, Quevedo, Azorin eta abar. Oso ezberdiña dalako, gauzak Euskalerritik edo Madrilletik ikusita.

Dana dala, selluetan bear doguz gure gizon-emakume andien irudiak Euskalerriaren jakintzazko ezauntza zabaltzeko. Eta bigarren gauza lez, gure gazteak erriaren zeregiñetan arduratu daitez.

Ez zan geratu pozik euki gendun alkarrizketarekin, eta FEROE ugarteak dauken Nortasunezko Askatasuna Bidalgoren bidetik erakusteko, berak an bertan erosita eukazan iru liburu eder emon eustazan idaz-lan au egiteko.

FEROEn lurraldea: Ogeitabi ugartearen artean osotzen dabe, eta 1.397ko Kalmaren batasunagaitik Dinamarkari egokitzen jako. Baiña 1.948n. urte ezkeroztik, jabetasun andiak daukiez euren jaurkintzarako.

Ezkoziako Iparraldean dagoz kokatuta 1.400 km. Laukiak daukazan ugarte bilduma orreik eta 44.000 biztanle. Nekazaritza eta artzaintzatik bizi diranak.

Jabetasun bidez, euren ardurapean dagozan gauzaren artean bat BIDAL-GOA da, eta aurrean daukodazan kartoizko orri luzeak, karpetaren antzera batzen diren agirian auxe diño: 1.996eko seillu gomutagarriak (recordables, (con)memorables). Eta zabaldu ezker alde baten, ugarte baten ingurubegi eder bat ikusiz, barru aldian, 1.996an agertuko diran seillu barriak.

Bigarren liburuxoan eta eskumako orrialdean, seilluak euren gizon andien irudiakaz edo ta beste oroigarrizko irudiekin.

Ezker aldeko orrian, oroigarritasunaren edestia, izaera eta zergaitik gogoratzen diran.

Irugarren liburuan, bigarren liburuan agertzen diran bardiñ antzeko baten, baiña emen margolariak aipatuta.

Konturatu beraz, zelako edertasuna erri jakintzaren arloan, eta zelako indarra daukan gure erritar ta erbesteko erritarrak ezagutu dagien daukaguzan erri-gizon/emakume ospetsuak, lurralde eta itsas-bazter politak, baserri-eder, txori, abere, zuaiz-mota, toki politenen irudiak eta abar.

Berezko erri batentzat esku-bide arteko seillu orreik ain garrantzizkoak izanda, eskaera sendo bat egin bear dautsegu daukaguzan mendeko agintariak, ez dagoelako eskubiderik, berezko erritarrai daukiezan eskubideak debekatu ta atzerritarrenak erabili dagiezan.

Bearrezko eskaera benetan, Euskal gorputza sendotu ta biztu daiten. Jakinda gaiñera, Europaren berezko (edo geienak beintzat) erri ta izkuntz guztietan dagozela irarrita seilluak

Dinamarkako erria osotzen daben FEROE ugartekoak, Euskalerrria baiño eskubide gitxiago daukie, gu erri bat garalako. Eurak baiña, lurraldeko jabetasuna diruaren aldetik egiten dabe, alan dalako euren banakuntzaren ardura legearen bidetik.

Nire ustez, erriaren indarra bear geunke postaren jabetasuna lortzeko: Eskaeraren agiriak, Udaletxe, batzoki, alkarte eta auzunetan izenpetuta Estraburgoko auzitegietan aurkezteko.

Ordua da, EUSKALERRIAren NORTASUNA eragozpenetik atarateko, beren seme-alabak berezko ardura geiagotan sartuta, orren ordezko oinkada bakoitzean sartzen diran argiaren izpi-bidetik, Mundu eta Europako erri-gizarteak batez be, gure erria nabaritasun geiagorekin ikusi dagien.

EUSKALERRIARENTZAT OR, ERREZTASUNEZKO BIDE BAT, EUSKAL ERRITARRAK BENETAKO ARDURAN SARTZEN ASI GAITEZAN.



Britaniarren entziklopediak diñoskuna

Luze ta zabal aztertzen dauz, Mundu onen arlo guztietako jakintzak batzen dabezan Britaniatar liburu onek, guk aztertzen dogun ikurraren gaia izan ezik.

Leen, bidalgo ikurra zer dan diño: Errian edo kanpoan, gutuna edo fardela bialtzeko almena emoten dauan txarteltxua.

Txartel ori, aurretiaz ordaintzen dau bialtzaileak, eta urteen joanean ordaintze ori laterriaren eskuetara jausi zanean, laterriak (estado Ingles) sortu eben bidalgo-sarea.

Gutunak naiz fardelak gaur, mundu guztira bialdu leiz, astuntasuna ta neu-
ria kontuan dirala.

Orretarako, gutunak bidalgoan artzen dabezenean, moltzotu ta norako diran ikusten dabe, gero su-gurdi, belbil-bus, itsas-ontziz, nai egazkiñez eltzen diran lekuetan, barriro moltzo txikiagoak egiten dabez etxerik etxe banatzeko.

Gaur, asko aurreratu da lan oneik egiteko, lanabes barrietan (instrumentos de trabajo) zenbatzaille edo kondalari azkarrak dagozelako.

Alboan agertzen dira baiña, zein geiago ta azkarrago egin leiaketarako prest, eta azkar ibili bear da lan bide orreitan lekua artzeko. Emen esaterako SEUR.

Gero, bidalgoen edestia azaltzen dau luze:

“Aginterriak antziñatik ikusi eben, aginterria eustea gura ba eben, erkidegoen arteko berriak emoteko, bide onak bear zituztela”.

Ejipton, Kristo baiño 2.000 urte lenago ba ebiltzazan bidalgo-gizonak.

Erodotok eta Jenofontek diñozkuen lez: K.a. 700 urte Persiako aginterrian eta Zioren denboran batez be, ondo eratuta egoala bidalgoen zeregiña.

Grezian, Uri bakoitzak beren bidalgoa eratzten eban, eta lortu be egokitasun ederra (obetu ez dana emeretzigarren gizaldiarte). Berreun eta irurogeita amar km. egiteko, egun eta gau bat ziran naikoak.

Erromatarrak, ondo jarraitu (continuar, mantenerse) eben bide ori.

Gero, bisigodoak be onak izan ziran bidalgoa eratzten, baiña Karlo Magno-ren ostean erri txikiak sortu ziran eta bidalgoak asko galdu eban. Gatzagoa egin zan.

Bizantziotarrak berbiztu eben jokabide au, eta gero Mauritarrak ondo baiño obeto eratu eben.

Mayak eta Inkak Ameriketan be, ba euken bidalgoaren zerbitzua ondo erata Kristo baiño milla urte ariñago.

Erdi Aroan, gutun asko ibiltzen ziran ara eta ona, batez be lekaide eta Ikastetxe Nagusien artean. Oneik, bidalgo taldeak eukiten ebezan, eta batez be Pariskoetan.

Italiako sal-erosleak be, onak izan ziran bidalgo arloetan eta eurak asmatu eben bidalgoaren ordainketak egiteko bidea.

Aiztu ez dana egin bear baiña, Erdi Aroan ia iñork ez ekiala jakin idazten, bidalgoaren premiñarik eukiteko.

1.450n. urtean irarkola (imprenta) asmatu zan, eta tresneri barri orreik bidalgo arloak indartuta, orduko errege jauntzazko agintari ordeak, irabazbide bat ikusi ondoren “MONOPOLIOA”-k sortu ziran, Pariseko Ikastetxe Nagusiak be, arlo orreitan euki ebazan almenak galduta.

Napoleonek, aurrerakuntza andia emon eutson bidalgoari, eta 1.817n. urtean “KOLINA ROWLAND”en aldaketa egin zanean, agertu ziran laterri arteko bidalgo ikurrak, alkarren arteko diru ordainketetan arazo barriak sortuta.

Amabost laterri batu ziran lenengo, eta azkenean dana dago Munduko Laterri Batuen (O.N.U.) eskuetan.



Bidalgo ikurrak zergaitik euskeraz?:

Gaurko idaz-lan onen leen elburua: “Bidalgo ikurrak Euskeraz eukitea da”.

Bigarrena: “Zergaitik izan bear dau gauza ber berori olan”.

Ondorio-lez: “Izatasunaren zentzuzko ulermenean ez daukalako beste biderik, beren elburua ezagutzea baiño” agertzen jakuna.

Bestela, iñoiz ikusi dozue eta geiago ulertu, bide-salketari (viajante comercial) baten bat, beste bide-saltzaille baten mozkiñagaitik zabalkundea egi-ten?. Erotuta dagoela esango geunke zalantza barik.

Ori da, gaur egunean Euskaldunak egiten doguna.

Beartuta?.

Edo ardura andi barik gabiltzalako garrantzizko tresna orreik gureganatzeko?.

Dana dala, Euskalerriko arduraren egon bear zan garrantzi andiko atal bat atzeritarren eskuetan dagoela. Orregaitik ainbeste Quevedo, Pelayo, Azorin, Espainako errege, beren sendikoak eta abar.

Euskaldunak badaukagu aitzakia, 1.876aren ezkerotik Europaren berezko erri guztien antzera, Espainaren guda indar eta maltzuckerizko guzur ugari bidez menperatuta geratu giñelako. Nai ta erri berezi askok bidalgoaren antolamendua euren eskuetan euki.

A ta guzti, ni ez naz konturatu gure ardurazko arlo onekin Latxaga (San Sebastianar Jose Mari) jaunak nire begiak zabaldu arte.

Gure gaurko guda osteko aldian arduratu gara?.

Aznareri itandu eutson batek seilluen gora-beran eta “SEKULAN BEZ” erantzun eban onek. Fragak, gure ikurriñagaitik bardin esan eban, eta argi dago gure ardurazko lanaren bidez lortu bear dirala bear dugun tresneri guztiak erri lez bizitzeko.

Internetetik begitzen ikusi dodaz, 1.936ko Eusko Jaurlaritzaren izenean Eliodoro de la Torrek egineko alegiñak, eta Euskal gizon, San Anton Eleiza, Gernikako Arbolaren irudiak eta abar euki ta barruan Espainaren Errepublikako izena euki ez arren (gitxi ez zana), gaiñean seillu orregaz joan bear ziran eta lanean ibili zirala askatasun osoa artu orduko Frankok menperatu ginduzan.

SEILLUAK: (Grekoz: “Laguna eta Zerga” esan gura dauana, eta Herodotok 484-425 Kristo baiño ariñago bizi zanak, Persaren bidalgoko antolamendua goratzen dauana). Oso urrutikoak izan arren, 1.840an Loraillaren 10ean Britania Aundiak ipini ebazan arreran, Rowland Hill asmatzailleari esker.

Britania Aundiko Entziklopedia artu ondoren argi ikusten dogu, seilluen antolakuntza agintari menperatzaillearen eskuetan egoala, daukaguzan laterriari begira egin ebelako.

Eta iñorentzat ez leuke arritzekoa izan bear, gaur egunean oraindiño, daukaguzan laterri auek diralako erromatar kaizar sakratuaren ereduari, etsaimendeko lege bardiñetan ezarrita dagozenak.

Dana dala, gero ta nabaritasun geiagorekin ulertzen asi gara: “IÑORENAK EZ DIRALA IZAN BEAR ORDEZKO ARDURAK”.

Espainan, 1.850ean irasi (instituir, implantar) ziran, eta or dago arrazoa Euskal seilluak Euskeraz agertu ez izatea, amaika urte ariñago (1.839) arrezkeroztik Espainatar Menperatzaillearen ankapean lotuta geratu giñelako.

Orregaitik azaldu bear doguz, zeintzuk eta nolako arauak diran, seilluari eskubide osoa emoten dautsoezanak, beren izaera berezia, Mundu onen gizarteetan azalkekatuta, zentzuzko arreran ibili daitezkan.

Orretarako, erazko azterketa batekin ikertuko doguz, daukazan zertzelada bereziak banan-banan argituaz.

- A) Zer dan eta zertarako dan seillua.....41
- B) Zergaitik eta nork azalkekatu leiken seillua. Baita, nork izan bear dauan Bidalgoren antolamenduko arduraduna be.....43
- D) Erriaren Nortasuna.....45
- E) Ondorioa.47



a) Zer dan eta zertarako dan seillua:

Zer dan seillua:

Gizon/emakume, elkargo, erakunde, jaurkintza edo erri baten berezitasunezko agiria izan ezker, mota guztiko seilluak sartzen dira: Ikus-txartelak eta ordezkariartzako txartelak be, seilluaren esangura bardiña daukielako.

Zertarako:

Norenak diran eskutitzak, ordain agiriak, atsegin-sariak, mezuak eta abar, egiztatzeko, eta nereko-bereko edozein motako mezuak, arreran gure artean ibili daitezcan.

Nortasunarteko mezu-gauzak bearrezkoak diralako, ekintza orren agiria da.

Emen, mota askotako seilluak agertu jakuz, Euskalerrria menperatuta ego-teagaitik, gaur arte danak, arrotzaren izkuntzan idatzita egon diranak. Ain-besterarte dalako Espainatar menperatzaileak egiten dauskun zapalketa, gure nortasuna ez da agertzen iñundik iñora be.

Baiña gaur egunean, askatasun aundia eukin da be, eskutitz asko, ia danak esango neuke, erderaz idazten doguzela. “Eta or ikusten da, zelako ardura daukagun gure Euskal Nortasunaren osasunaren alde”.

Laterriai estukuntza geiagotan sartu bearrekoan, aitzaki asko ipinten doguz: esate baterako “Eskutitzak artzen dabezanak, ez dabelako ulertzen”. Eta ori ez da egia, gure izen-abizenak, bai elbideak be, Euskeraz daukaguzelako eta danak ulertzen dabelako.

Anai-Arrebok “Or ez dago aitzakirik”.

Dana dala, gu arduratzen gaituna: Greziatarrak ezaugarritako seilluaren esangura da: “Lagun eta Zerga”. Ori dalako erri batek bere agindupean daukan tresneri oneitariko bat: “gure izkuntza, gizon-emakume ospetsuak, Euskalerriko toki politak, bertoko txori abere eta abaren irudiak, mezu seilluaren bidetik gure auzo ta Munduko erri guztiak ezaupidean ipinteko”.

Bai, gure errian sortu lei langabeziari aurre egiteko be, gure jaurkintzaren antolamendu on berezi bategaz.





b) Zergaitik eta nork azalkeratu leiken seillua:

Zergaitik:

Gizon-emakume, elkargo, erakunde, jaurkintza eta batez be erriak, beti gura dabelako beren idaz-mezuak ondo apaindutako gauzakin eskaintzea, eta ze obe, beren erriak daukazan edertasun guztiak ezagutu daitezcan seillu txukun batekin baiño?.

Nork azalkeratu leiken seillua:

Eskutitza, nai jaurkintzakoa, gizon-emakumeena, elkargo, erakunde eta abar izan....: "NEREKIKO-BEREKIKOA DA", orduan NORTASUNEZKO-AK DIRANAK zalantzarik gabe.

NORTASUNAK, orregaitik jokatu bear dau ardura guztiagaz. Eta ez erdi-purdika, Nortasunaren eza nabaritzen daualako.

Gaurko giza garaiak, lagun arteko gauza bereziak eskeintzerakoan guzurra eskatzen dabe?: "Lagunak, beti jakingo dau zeintzuk diran norberen arteko berezitasunak, eta gure Euskalerrian gaurko seilluak guzurra esaten dabela be bai. Agertzen daben Izkuntza ta irudiak ez diralako gureak.

Baiña Espaina ta Frantziako atzerrian ez dabelako ulertzen gutxik baiño, eta gu erdi lotan edo oker gagozelako, eurak errez eroaten dabe aurrera alan ostondutako zapaltza ori.

Eta Espainako atzerritarren artean, Euskal usaia daukan gauza guztiari nabaritasunezko amurrua erakutsiz gain, euren mendeko nausitasunean ardurarik ez dautzielako emoten, ia ezer igarri barik dabiz gure eskutitz eta fardelak leku batetik bestera.

Gure Nortasunaren alde zeozer egiterakoan, gitxien salatu bearke geunkez zapaltza orreik, eta euren epaikundeak ez dauskulako jaramonik egiten, Euskaldun guztiak ze obe, eskutitz fardelen elbideak eta igorle edo

bialtzaillearenak EUSKERAZ IBILTZEA, Espainol-Frantzez faziztaren guzurrak, ziurtasunezko bidetik apurka apurka agirian geratu daitezcan.

Gaurko Europaren aurrerakuntza, ziurtasunezko egian asi bear garelako egiten, ezin leike tiroka ibili, ekintza orreikaz euren izatezko guzurra ostondut egiten dabelako arazo barik.

Eta Euskalerrriak jaurkintzan egiten dabezan alegin guztiak, eurenak baiño askoz aurrekuntzazkoak izan arren, or geratzen dira, bigarren ostondutako leku baten, gure arteko Euskaldun eta atzerritar menperatzaillaren guzurragaz lelotuta atrapaute dagozanak, autezkundeetan aitzakituta geratzen diralako nai P.S.O.E edo P.P. faziztari botua emoten.

Orregaitik, Espaina ta Frantzeztar menperatzaillaren guzurra danak jakin arren, euren guzur-maltzurkeriak ondo baiño obeto ostonduten dabez, eta danon begiramena euren arazotik aldatuz, gure arazo biurtu egiten dabe. Guk orretarako, aukera ederrenak emoten dautseguzelako.

Bide onetatik, mezede gitxi egiten dautseguz gure gizon-emakume ospatsu eta daukaguzan txori abere, lur, baserri eta itsas-basterrari, eta gitxiago, gure "EUSKALERRI MAITE ONERI"

Norenak izan bear dira bidalgoaren antolamenduzko ardurak?:

Berezitasunezko Nortasunaren (nerekiko-berekiko) gauzak diralako argi dago, nortasunaren ardurak izan bear direla.

Erri batek, gauza askoren artean, Berezko Nortasunean bear dituelako selluaren ardura eta zergak Bidalgora Demokraziaren askatasunezko eran antolatzeko, Erriaren jabetasunezko ekandua, oitura edo etikak, aots-karrazian eskatzen daualako.

Beraz..., begitu nortzuk izan bear garan, bearrezko gauzak gureganatzeko.

Sabinok esaten eban: "Euskalerrria babes barik egoala orduko denboratan" eta egi ber-bera da gaurko egunetan, menperatzaileak desagertu arte.

"LAN ORI: GURE NORTASUNAREN ARDURAK IRABAZIAZ LORTZEN DIRA".





d) Erriaren nortasuna:

Giza seme-alabeen arteko ordezkartzaren bidetik lortzen dira berezitasunezko zertzeladak, euren arteko egin bearrak ikasiz eta oituruatuz, Nortasun berezi bat emoten dautsielako. “Euskadi oso zaarra da edestian zear, ori berori ez jakiteko”.

Badira gizon andiaren esanak, menperatzailleen zapaltza orreik salatzen dabezanak.

Aristotelesena adibidez: “Erri berezi bateri, beartutako agindu bat galerazo egin ezkeru, daukan Nortasunarentzat benetako erronka edo aokaldi (ofensa) astuna egingo jakola”, eta JAINKOAK ipinitako berezko LEGEARi, aokaldi ori ezin izan andiagorik.

Orregaitik, len argi geratu dan lez, Nortasunaren gauzak dira eskutitzaren eta seilluen egin bearrak, Nortasunaren Berezitasunak bear dabelako eskutitzaren berotasuna, erriarteko gizarteetan arremanak eta sinismena sendotzeko.

NORTASUNA da orduan, indar berezia emoten dautsona berezitasunari, JAINKOAREN LEGEAK agintzen dauskun lez, neurri andiko ordezkariak izateko.

Orren esan naia, NORTASUNEZKOA IZATEKO bear dauan tresneri guztia berak euki bear dabela esan gura dau, beren gorputzak eroaten dabezan: “Gibela, biriak, urdail edo sakela, nai bularrak eta koskabilloak, bizitzako gauzak beteteko. Nerekiko-berekiko gauzak diralako JAINKOAK bakotzari emonekuak.

NORTASUNA, saldu ezin edo eman ezinezkoa da, norberen gorputzan biotza edo biriak diran lez, eginekotan eriotzera bialtzea dalako.

Gure ARIMA, Mundu onetarako gizatua izan dalako, BERAk bakarrik bete leikez JAINKOAK bakoitzari emondako agindu bereziak.

Orregaitik, Euskalerriko Nortasunaren “ARIMA” “EUSKERA” izan-da, Euskerazko tresnerian osotuta izan bear dira beren gorputzak eskatzen dutson guztia, bizitzaren ekintzarako gogai (concepto, idea, pensamiento) guztiak mekanikan sortzen diran lez, zentzunezko uztartzeak (acoplamientos) egiteko, osagarriak (complementarios) izan bear diralako.

“BIZITZA ONEK NORTASUN BARIK, EZ DAUKALAKO ZENTZUZKO ZUZENTASUNIK”.





e) Ondorioa:

Bidalgoari buruz idaz-lan onen sarreran leen ikusi doguna: Nortasunaren gauza bereziak dirala eskutitzarenak. Eta zelan ez diran gauza bardiñak Madrildik edo EUSKALERRITIK ikusita.

Aitzakirik badaukagula aipatu dogu. Baita zer lortzen dogun aitzakian geratu ezkeru.

Britania Andiko Entziklopedian, zelan bidalgoen tresneri guztiak, Laterri-Menperatzaileen eskuetan egon dirala, eta gaur egun ere dagozela. Nai ta apurka apurka Nortasuneko Berezitasunak berrezkuratzen asi.

Baita, 1.839 urte arrezkoroztik menperatuta geratu giñelako, Seilluak Euskeraz zergaitik ez dagozan irarrita.

Guzti au ikusita, erazko azteketa bat egin bear izan dogu, noren ardurak diran ziur jakiteko. Eta A) baztar arloan: Zer dan seillua argitu dogu, eta bai zertarako dan ere. Beragaitik, nolako ardura daukagun ikusiaz, oraiñarte beintzat.

B) Baztarrean: Zergaitik eta nork azalkeatu leiken seillua. NORTASUNARENAK dirala oso osoan ikusiz, berezitasunaren gauzak diralako.

Eta D) baztarrean: Erriaren NORTASUNA zelan lortzen dan, baita asken baten, bidalgoen gauzak zelan diran tresneri egokienak gure NORTASUNEZKO ARIMA artean artu emoneko ezautzan. Giza gorputzaren antzera: “Garuntegi, gibel, biriak, zakel nai bularrak eta koskabilloen artean daukazan adieraziak, bakoitzak jakin dagian zer egin bear dauan EUSKAL gorputz orren osasunerako”.

Guzti au ikusita, ez dogu artuko lotsa apurbat geiago, gure Euskal Gorputzaren EGARRIAK ASETZEKO?.

Nik uste dot, Erriaren giza barrena izartzeko badaukaguzela batzoki, elkar-te eta erri toki ugari, ardura oneik ezagutzera emonaz lanean asteko. Gure gauzak diralako eta bearrezkoak Euskal Gorputzaren osasunerako.

Begitu bestela, Aranatar Sabinok nolako arduraz eta zelan ulertzen eban egoera au, Arantzaditar Ingartziri 1.901an Urtarrillaren 5eko eskutiztan idazten eutsozanakaz:

“Gogoratzen asten nazenean onetaz edo endaren gora-beran, au bajoakula aitzen dot, eta bajoaku asi dogun gizaldi au amaitu orduko”.

“Gure erriarentzat zabalkundea latz biurtu jaku, asarregarria da !”.

“Aukera bakarra diruan dago, eta au ez da aurkitzen”. Baserritarrak geiegi daki, Euskereak ez dautsola ezertarako be balio semeari.

Zuzenbide bakarra langintzako eta trebetasunezko elkarteak antolatu, anai-arteko ongilleak eta arrantzaleentzako elkartasunak (mutualidades), nekazaritzarako, abel azikerarako, ibilbideak zabaldu edo jabetuz..., bizitzan eskutarteko guztiak legez erritaratuaz (nacionalizar), Euskereak zeozertarako balio dagian. Nai ta naiezkoa izan daitela eurakaz artukizuna eukitea.

JAINKO Aundia, Aalduna eta Bakarra da zuzendu leikena !. Bearrezkoa da, Euskerea naikoa izan dedilla, eta gertatzen dana da, ez dauela balio nekazaritzako egintzaren izketarako baiño.

Bizkaian, bear doguzan liburuak be, ez daukaguz azibidea burutzeko, ez guztia, erlijiozko oituraren azibidea baizik, bear-bearrezkoa dana emakume gaztea sendi baten ama izateko be.

Ai, nere laguna!. Au baserriaren barruko bizitzan sartzen asten danean, nork-berak argi ikusten dau; gauza bat oartzen dau: “Biotzak negar egiten dauala, eta negar egiten dau zuzenbideak aurkitu barik”.

Gure aurrekoak zer egin dabe?. Zer egin dau Eleizak?, elizkideen amak?.

Gizaldi asko dira gure erria laguntzarik gabe dagoala: “Euskera ber-beran dago orren ezaugarria. Egiatzko mirari andia da, gure zoritxarreko erri au, asierako bidetik eta apaizak bideratuta, ez ziurtasunez txarra, baiña ardura gitxian euki dabela.

Gaur arte gorde egin dauana, ara ez dan eldu oraindik eraso-aldia, beren duintasuna eta zintzotasunak izan dira. Alan ba, bera begituten badogu, erri ber-bera esan leike Nai ta nai ez iltzeko bidean dagoela. Baiña JAINKOA-ren eskuari begitzen badautsagu, BERA da eutsi dautsona”.

Norberak itauna egiten dau: “JAINKOA izango ete da ba, au desagertzea gura ez dauena?”.

SABINO, benetan konturatu zan, EUSKAL NORTASUNEZKO ARI-MAREN osasunarentzat, Euskal oiturazko tresneri-gauzak zirala osatzen ebana, gure gorputzarako diran biotz, gibel, zakela, bularrak eta koskabi-loaren antzera.


Bizitza, JAINKOAren gandik antolatuta, bizitzarako LEGE-BARDI-ÑEZKO tresneri bearrean antolatuta egokitu ebalako.

“GURI EGOKITZEN JAKU, BIDALGOAREN
TRESNERI GUZTIA BERREZKURATZEA”

“NOZ DA ERRIAREN TXANDA?”

Atutxatar Paul
Zornotzan 2.009an Zezeillaren 23an





III.- Erri txikien nortasuna

Nazio Elkartuaren Batasuna N.U. 1941

Egoitza, Washinton eta Ginebran

Feroe ugarteak, askatasuna, 34.000 biztanle, jabetza 1955

Bakallo arrantzatik bizi dena, Dinamarkako jaurlaritzapean bizi dena.

Andorrako Lurraldea.

España ta Franziko tarte orretan bizi dena. Beren askatasun osoan bizi direnak. Selloen bitartez.

Palestina

1948, bi burujabetzetan sorteen dituzte, Palestina ta Israeleko Lurraldeak, Arafat Arabetarren buru bezela.

Maltako zaldunak.

Aita Santuaren itzalpean sortzen dute egoitza berezia Erroman dute Jauregi galanta. Vaticano Egoitza.

Vaticano estaduaren lurraldean.

Lichtensgo prinzearen agintzapean. Museo arrigarriak dituzke.

Nortasunaren indarra dauzkate. Txikiak bañan gogo aundikoak

Latxaga





IV. - Euskalerriko nortasuna

Postaren kondairak esaten dabenaren arabera, lenengo zigilua 1840ko maiatzaren 6an jarri zuten martxan, Komunen Ganbarak izendatu zuen batzorde batek lagunduta (1837-11-22). Posta mota berria au berala izan zen onartua beste nazio batzuetan, eta urte gutxitan nazioartean arrunta biurtu zen.

Euskalerriak ere atera zituen bere zigiluak karlisten gerrak zirela eta. 1834an Fernando VIIgarrena il zenean Carlos Maria Isidroren aldekoek berau aldarrikatu zuten legezko oinordeko, orrela asiera emanaz Lenengo Karlistaldiari (Zazpi Urteko gerra 1832-1839 Liberarelen edo Isabeldarren aurka, Isabel printzesa artu bait zuten legezko oinordeko.

Gero beste bi gerra izan ziren, eta bigarrenak (1847-1860) Euskalerrian ia eraginik izan ez bazuen ere, irugarrenak, berriz, 1873 eta 1876 artean izan zenak, aukera eman zuen “lenengo euskal zigiluak” deitu daitezkeenak sortzeko. Dena dela, legez ez dira tokiko agintariengandik sortutako plazaratzeak baño, eta ez nazioarteak onartua eta legez osatua dagoen Estadu baten eskumena duen organoaren plazaratzeak.

Euskalerriak naiko nortasuna du bere zigiluak argitaratu eta plazaratzeko, espero dugu iristea argitara ditzakeen egun ori; orretarako badu eskarmentu txiki bat zigiluen munduan eta ondo etorriko zaio momento ori iristea. Ez zaio faltako jenda, artearen munduan - aldera guztietan- literatura musika eta abar; asko izan baitira Euskalerriak eman dituen maisuak, zigilu katalogoetan aipamen bat merezi dutenak. Gaiak euskal kultura eta euskal zibilizazioa izan daitezke.

Bertsolaritza gaiak era aso eman dezake, istorian zear bertsolari bikiñak izan bait dira; batzuk aipatzeagatik: Pierre Topet, “Etxahun”, (1876-1862); Juan F. Petriarena, “Xenpelar” (1835-1869); Indalecio Bizkarrondo, “Bilintx”, (1857-1910); Joxe Manuel Lujanbio, (1860-1936) eta beste asko. Jose Maria Iparraguirre ere (1820-1881) bertsolari eta olerkari aundia izatea iritxi ez bazen ere, musika baliabideak mugatu samarrak bait zituen, jakin zuen euskaldunen biotzean eun urte baño geiagotan zirarra sortzen bere abesti sortarekin.

Euskal idazleak, berriz, eundaka dira XVIgarren mendetik asita. XVIIIgarren mendean eta gipuzkorrak kontuan artuta, onako auek topatzen ditugu: Agustín Kardaberatz (1703-1770), Sebastián Mendiburu (1708-1782), Peñafloidako kondea (123-1785), Juan A. Mogel (1745-1804), Jun I. Iztueta (1767-1845). Eta ondoren sortu dira asko eta apartak izan dia, beraz, Euskalerriak bere zigiluak plazaratzeko almena izatean izango du non aukeratu euskal kultura eta euskal zibilizazioan.

Josu Iturrioz



EUSKALERRIA

V.- Postako izenak euskeraz egiñak

Aurkibidea

BIDARI

BIDALGO

BIDARI ETXE

ESKUZ A LA BIDALGOZ

BIGAL KALE

JOTAKU

ORPOZ

EGIZTATUA

Latxaga

e



V.- Postako izenak euskeraz

“Posta” euskeraz “bidalgo” da, baiña erakunde ori ez da bilatzeko bakarrik, beste batzuk bialdua artzeko be bada.

Egokiagoa eta erdel erriakaz alkar ulertzeko errezagoa da “posta”, eta onek “lekua” baiño besterik ez diño, ez dau argitzen zeren lekua dan. Aurretik beste itz bat bear leuke, esaterako “Mezu-Posta”.

Erderaz “Correos” esaten da. Nondik dator itza ori? “Ibiltaria” esan gura dau, mezuak ekarten ebezanak etxerik etxe ibilten ziralako mezu orreik eroaten.

“Posta” baiño izen egokiagoa dala argi dago eta ori euskaldunduta “mezu-ekarleak” izango litzake, baiña ez da ori erakunde onek egiten dauan lan bakarra, mezuak eroan be egiten dauz eta ekarri naiz eroan ez dira beti mezuak egiten, “posta”ren bidez milla gauza artu naiz bialdu leikez, dirua bera be bai, edo liburuak edo gomutaki diran bitxiak naiz agazkiak eta abar.

Laterri bakoitxak bere “posta-laguntza edo zerbitzua” dauka. Egia esan, laterri-arteko arazoa be bada, gaur iñoz baiño geiago, mundu guztiagaz artu-emonetan gagozelako. Mundua “baserri alkartua” edo “aldea global” da gaur.

Baiña mezuak eroateko ikurrak edo seilluak asmatu dira, orretarako laterri guztiak alkarren arteko ituna eginda.

Ikur edo seillu orreik artzen dira bide lez laterriko jazokizun aundiak edo gizaki ospetsuak agertzeko eta zabalkundea egiteko, esaterako Lepantoko gudaldia eta Cervantes ospetsua edo Lope de Vega.

Ori orrelan izanik, itaun batzuk egin bearrean gagoz euskaldunok.

1^a.– Zergaitik ez daukagu “posta-erakunde” euskaldunik? Zergaitik egon bear dogu orretan be Españaren menpean eta geure gauza aundiak eta gizaki ospetsuak agertu eziñik? Ez dauko orretarako baliorik daukagun buru jabetza edo autonomiak? Ori lortu bear dogula uste dot!

2^a.– Zer irabaziko geunke geure “posta-ikurrak edo seilluak” eukiteagaz?

Ikur orreitan geure jazikizun aundiak eta gizaki ospetsuak agertuko geunkez eta onein zabalkundea egin.

Esaterako, ikur bat geure lendakariaren irudiagaz eta Gernikako Ariztagaz edo Lenengo lendakaria izan zan Jose Antonio Agirrerren argazkiagaz edo Luiandoko zugatz maillatuagaz edo Ameriketan ain lan aundia egin daben gizakien argazkiakaz edo Elkanorenagaz eta abar...

3^a.– Egin leiken gauzea da ori? Gernikako Araudiaren barruan sartu-bearreko gauzea dala dirudi eta gero orretarako aldaketa edo “transferentzia” egin bearko litzake. Ez da eziña baiña bear dau ekiña.

4^a.– **Buru-jabetza** osoa edo “**independentzia**” bear ete da orretarako?

Ori litzake biderik onena, baiña ori ez datorren artean, kontuan artu bear dogu eskubide ori eukiteko, posta-eskubidea ez dala laterriarena, edozein errigo autonomok be euki leikela, Euskalerrriak edo gaurko Euskadi diran Bizkaiak, Gipuzkoak eta Arabak be bai.

Emen be lenagoko “El imposible vencido” edo
“eziña ekiñez egiña” lortu bear da.

OLAZARtar Martinek



VI.- Euzkadiko Jaurlaritzak 1937an egindako zorrobidea

Selloy de correo emitidos por el
GOBIERNO DE EUZKADI



EUZKADI-KO JAURLARITZAK

400030

M U L E S T R A

e

VII.- Ana Marin margolari ziñezkoa

Ana Marin margolari Baztango alaba dugu; 1933. urtean Elizondo jaioa. Margoak irakasten Donostian berez asten zaio gogo.




Asieratik Euskalerra osoan erakusten ditu lanak. Madrid, París, Londres eta New Yorko iri nagusietan agertzen ditu bere margoak ere.

Aurten Elizondon, Bergareneko etxean antolatu du erakusketa nagusia Uz-tallatik Agorra arte; 57 olioiz egindako margoak eta 25 margo soillakin.

Gaiera ba ditu bizpauru liburu margozko argazkiekin argitaratuak, oyetatik bat euskeraz idatzia, BAZTAN izenekoa. Egokia iduritzen zaigu euskeraz-ko liburu au. Baztan zer dan ongi agertzen digute Ana Marin margoak.

Mendien izkuntza nolakoa dan erraten dute. Mendiak sortzen dute bio-tzere atsa, mendien inguruan ezarriak Baztango eureka ortan. Amalau erri oyek gizarte orren kabiyak eraiki dituzte. Amets tokiak, maitasunez egiñak dirudi.

~ BIZTUKO BALITZATE ~



Leyo zabalak anitz erabiltzen ditu Margolari onak maite dituzte leyoak. Ongi irikiak, batzuetan lore ederrez bateaz daude; ikus Murillo, Zurbaran, Goya eta abar. Etxe inguruak nolakoak diran ageri.

Maiz ikusten ditu aristegi, pago oianak ederrak mago biziz apainduak. Metak.. bide batian iratzez, lasaitasuna ematen diote biotzari eta atsegiña begieri. Garrantzi aundia ematen die erriko semiei; maite ditu, danez gain dantzariak, txistulariak ta oitura zarrak zabaltzen dituztenak. Ortzen daude Feliz atabaleraren margozkiak eta danez gain Mauricio txistulariena Erriaren nortasuna mutil dantzarekin agertzen du. Anaitasuna ta alaitasuna, naiko bizkor ibilliz lortzen ditu.

Artzain eta laborarien esku lanak atsegin zaizkio, egiatzko bitxiak bezela; abatza, malatza, simitas, bartola eta oporra. Lan tresnak ere eskuz egiñak dira, gasnak bezela, erran nai dutelako.

Toki berexi bat ematen die margoeri; batez ere udaberriko urdiñei, udazkeneko aizeguari ta guztiz garbia negiko elurrari, udaran gorri biziakin.

MIRENTXU ¿NORA ZUAZ?



Los
7
LOPEL

NEURE MAITIA

Andantino

INDUSTRIAS GRAFICAS URIARTE

KARLE

Bere erakusketan beste bide batian dauzka landuak margoak; aurren jolasak dirudi. Txorien mokuen antza dauzkate, oso alaiak gelditzen dire Margoak; larrua kizkurtzen uzten dute eta begiak lasaitzen. Marrazkiak beste alaitasun bat ematen due; begi garbiak berealaxe ikusten dutenak.

Ikusiko genuke oso gogotik bere margoetan erabiltzia nizperuak eta sagardia, loretan oso guretako kutsua daukatelako. Zerbait erran nai dute Berganerako lorategiko urritzak, igeli ederrenetakoak dira; ditzira galantak ageri ta Euskal kutsua elkarteko emaitza ziñezkoa begientzat.

ANA MARIN MAGOLARIAK EUSKAL KULTURA ABERASTUTZEN DU.


Latxaga

LOS
KORREZ

ESKALAPOIN — DANTZAN



Es-ka-la-poin dan-tean, Bai goi-i-ko pla-zan-ta




gi bat arí-do pon-tean iau, iau, iau A-tso-ro-ta-a-



gu-re gau-zi-ka-a-i di-re atí-u du-ton arí-té



iau, iau, rau. Rai ta rai, iau ta rai, rai ta rai;



rai ta rai, iau ta ra ra, iau ta ra ra iai, iai.



iai. Rai ta rai, iau ta rai, iau ta rai



iau ta rai, iau ta ra ra iai ta ra ra, iai, iai, iai.





KATĀLIN

Moderato *rit.*

Ka-ta-lin li um-tā-um, ka-ta-lin a-um-e. z-un-ba-na so-l-tōm

du-su-de ee-na sar-din-e? — a-ma-lau-ma sa-be-di pre-se-o-ya-kon-

Nik so-tut be-as e-ta-gai-ai-ran-ai-tem-e. *Allegretto* A-ri-tā-

a tempo

te-e-ra-tia-te as-to-a-ya-tōm su-m sar-tai-ran-bud-li-te.



LEYOTXUTIK

Astiro ta arte

Be-go-tu-tik be-go-tu-a a-re-rit
 a o-tea, oi! a-ri-a o-tea.
 Sar-tu be-di bai-ri-ne-a san-re-rit
 tan da-go! an, bai, re-tan da-go!



5
7
KORITZ


•TXORITXUBAK KAYOLAN.

Dolce

Txo-ri-txu-bak ka-yo-lan e-lu-nik dau a-bel-ten,
 ten-i-txu-bak ka-yo-lan e-lu-nik dau a-bel-ten,
 dau-lu-it bel-ten ee jan, ee e-dart, ba-su-a
 gu-a-i-xa-ten: ay-ke, ay-ke bi-xu-i-xa-nay-hai.

da go-mu-ta-ten.

e



2010
7/10/2010

KARLE

LIBERAME DOMINE

Andante *Allegretto* *meno mosso*

Li-be-ra-me do-mi-ne san-ti-si-mo, es-bus-te-

a tempo


in-fer-ri-um et car-nem, ad-no-am bus-te-ra-zu, han-

on-ge sai-tu-ra-zu; ho-ri-da na-ti-ko du-dare-

meno mosso

a. fil-i-um bi-ri-an be-ra-l-

Sos 75 COLORET



' NERE ETXEA '

Andantino

Pi - e - zioz on - e se - me - a na hie on ur - no goate
ma lli - ko bat hor re - a . Zor - re - on gau - set barrena
di - en ba - da sa ma se tal - dea Si gu - tuz on - o
bi - de - a no la bar - ten egitea es du galduta eta



e

ეს
სიმღერა
სამომავლოდ



! ოწაზეზ!

Andante *ff*

Mes - ka go - so ta po - lit bat ner meste
 nu - en bi - e - tze Be - se me - pe - ge zu ri - e
 doi - a be - te - ten ma - du - on po - zee. *allegro* Ba - ña gar
 xo - a il zi - tra - e - dari, nek u - tze - ti - kan nu - ga
 rez. Je - cos - ti - kon be - ti gauz e la e - gu - mez, bi - o - tza
 dan kat, o - ña - zee!

IRUTEN ARI NUZU

Chos H YOREZ



KAR'E




I-ru-tu-a-ri nu-zu-ku-lu-a-ge-ri-



an, Ar-du-ra-du-da-la-rik, Ar-du-ra-du-da-la-rik




nu-ga-ia be-ge-an; Ar-du-ra-du-da-la-rik,



nu-ga-ia be-ge-an

e



¡OTOITZA!

Lento

Zun-e bai-tar -- ix, Jon-ko Jauri oi -- i; Be-ye-ak al-
 tea-teen da-zut mai-te -- ke. A-bei-e-jar-en da-ko
 Li-bu-ta -- te -- a at-uki, ten-bat-ten, bai-ten, bai-ten
 en-da-su! Zun-e bai-tar -- ix Jon-ko Jauri oi -- i
 Ur-o-en be -- gir-a e -- mon nau-sa m..



VIII.- Pilotariak Euskal jolasen oñarriak

Mendeak dira Euskalerrian pilotazaletasuna mantentzen dela, eta gaur egun ez dirudi zaletasun ori galduko Denia. Izan ere, alde batetik komunikabideak bere alde daude, eta telebista pilota partiduak eskeintzean laguntza handia ematen dio zaletasunari. Bestetik, EUSKADIKO EUSKAL PILOTA FEDERAKUNTZA oso modu eraginkorrean ari da bultzatzen pilota umeen artean. Ori gainera neronek baieztatu dezaket, biloba bat bait daukat, Jon Irigoyen Iturrioz, 13 urteko oiartzuarra eta pilotari kozkortua orain dela la urte Pilota Federatuzuntzan afiliatua dagoena eta sari mordoxka irabazi disuena, beste ume askorekin batera erri txiki eta ez ain txikietan egiten dituzten txapelketakin zaletasuna pizten ibiltzen direnak.

Pilotaren aldeko beste erakustaldi bat, eta izugarria auxe, bukatu berri den banakako txapeletan ikusi dogu. Finalera iritsi ziren biak Leitzarrak ziren gainera: Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea. Leitza erriaren portaera erabat zibilizatua izan zen. Zalantzarik gabe bataren zein bestearen aldekoak izango ziren erritarren artean eta ez zuten inongo istanbilarik Portu. Oso lagun berexia izan zen Leitzaiko istoriarentzat (2855 bizilagun). Bertatik bost autobús atera ziren Donostia aldera partidua zuzenean ikustera, eta errian taberna guztiak bete ziren partidua telebistaren bitartez ikusteko, gogoz baina adizkidetasunez. Partidua bukatu ondoren Bengoetxea irabazlea izan zelarik, errien festa ikaragarria ospatu zuten txaranga joka eta jendea pozez zorutzen. Leitzarrek pilotalekuan afari errikoia eta jendetsua egin zuten, eguna ilusio eta jai giro bereziarekin bukatuz.

Jakina denez euskaldunak ez zuten asmatu ez pilota, ezta pilota jokoak dituen aldaera ez bardinak ere, baina ezin da ukatu bere izaerara moldatzen jakin dutela indar, arintasun eta trebetasun doaiei balio aundiena emanaz eta landuz eta garatuz beren nortasunaren parte balitz bezela, ondoen munduko txokorik ezkutuenetara eramateko non “euskal pilota” izenarekin ezagutu eta miresten duten.

Pilota aipatzen den aspaldiko garaietara jotzen uste dut komeni dela gogoratzea 1480ko ekainaren 24an Frantziako Luis XI.ak agindu bat ezarri zuela onako esaten zuena: “lanbide orretako “maitre guztiak (pilotagileei “maitres paumeirs” deitzen zieten, eta 1292an Parisen 13 zeuden liburu denda bat besterik ez zegoenean) beartuta daude pilota onak (esteuves) egitera eta ondo beteak (garnis), larru onarekin bilduak eta auntsz ile onarekin (boure) ondar, igeltsu xeetu, altzairu xee, kare, zain, zerrauts, errauts, goroldio, auts edo lurriz nastu gabe, bestela isuna ipini eta iruzurra (esteuf) jaso eta erre egindo zen inor kaltetua gera ez zedin”.

Inglaterran XV.mendera arte betelan moduan giza ilea erabiltzen zen eta XVII.mendetik aurrera kotoia.

Ikus daiteke dela mende franko ere gaur egun sortzen diren arazo berberak zeudela eta eztabaida bero berberak sortzen zirela pilota osatu eta egiteko orduan, partidu erabakigarri eta garrantzitsuen emaitzetan eragina izan bait zezaketen. Istorio errepikatu egiten da.

Ugari dira istorian zear egon diren pilotari aipagarriak, baina esku pilotari nabarmenak aipatzekotan era emen Juan Jose Larrañaga (Azkoitiako txikito); “Cantabria”, Ermukoa (Bernardo Azcarate); “Lekeitioko zapatagilea” (Valentín Castellanos); Arrasateko erraldoia (Juan Bautista Azcarate); eta zer esanik ez “Txapel Aundi” (Mariano Juaristi), Atano II.a.

Nabarmendu diren pilotariek ere merezi dute toki bat Euskalerrrian noizpait plazaratu daitezkeen zigilu bildumetan.



Josu Iturrioz

IX.- Euskaldun berriak

Euskaldun erbesteratuak ugaritzen Ameriketean.

Euskera garbitzen dijoa.

Erriaren yakintza jaso bearra.

Euskal etxeak sendotzen, New Yorke etorkizuna bidean.

Erriaren maitasuna suspertzen.

Latxaga



meke
 Oñatibia' tar
 Yon
 ta
 107



107



X.- “ Neke ta poz” liburua 1983

YON OÑATIBIAREN EMAITZA

Eresiaren Ikastetxe Nagusiaren goi maillan ikasten.

Euskera irakasle-lanean, Reno (Nevada).

Boisen, Idahoko estaduan.

Naparroako Diputazioan euskerazko irakasleak sortzen alegintzen da.

New Yorken Colege of musik goimaillako ikasketak.

Ipar Ameriketako Euskal laguntzakin; Boiseko, Idaho, Nevadan itzaldiak ematen.

Método Radiofónico 1965, Reno, Las Vegas.

Ameriketako euskaldunak elkartzen; Venezuela, Santo Domingo eta USA, New Yorken

Euskalerrira, Oiartzungo txistulariak, antzerkiko taldeak, dantza berria, erri dantza dalakoa.

Euskeraz izparringietan.

Sorbonako irakasleekin artu emanetan.

Ezbear aundi batean iltzen da, 1979 uztaillaren asieran.

Azkenean Sorbonako irakasleak eskeini zioten Yon Oñatibiari irugarren maillako doktoradua, emanez goi maillako jakintza.

Latxaga

Euskeraren erri akademia
Academia popular de la lengua vasca
L'academie populaire de la langue basque

euskerazaintza